

## Lanki ikertegiak liburu bat argitaratu berri du Mondragoneko esperientzia kooperatiboaz

2008/12/15

Lanki ikertegiak liburu bat argitaratu berri du: **“La experiencia cooperativa de Mondragon. Una síntesis general”**. Larraitz Altunak koordinatu du liburua. Egileak, berriz, hauek dira: Larraitz Altuna bera, Ainara Udaondo, Joseba Azkarraga, Jon Sarasua, Iñigo Iñurrategi, Ainhoa Larrañaga eta Eneritz Pagalday.

Arrasateko esperientzia kooperatiboa erreferentzia ezinbestekoa da munduan kooperatibismoari dagokionez, eta sortu zenetik, orain mende erdi, ikerketa eta argitalpen asko eragin ditu. Hala ere, egileen iritziz, faltan sentitzen zen lan bat, eskainiko zuena Mondragon esperientziaren ikuspegi orokorra. Horixe da, hain zuzen, lan horren egiteko nagusia: irakurlearen esku jartzea sintesi bat, sarri aipatu diren arloak hartuta, eta ahazturaren putzuan jausi direnak, irakurleak errazago irudika dezan zer den ezinbestekoa eta zer berezia esperientzia kooperatiboan.

Liburu hau plazaratu da zenbait erakunderen laguntzari esker:

[Euskadiko Kutxa](#), [Mondragon](#) taldea, [Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua](#) eta [Mondragon Unibertsitatea](#).

